2021-2022 ikasturtea
Etorri zure ikastetxearekin Ekainberrira.
2, 3, 4 orrialdeak

Erreserbatu zure jarduera Ekainberrin
4 orrialdea

Ekain berriak

2021eko iraila | www.ekainberri.eus | Doako edizioa

Hezkuntza ziklo guztietarako eskaintza zabala erreserbatu daiteke Ekainberrin

EGIN ZURE ERRESERBAK
HAZ TUS RESERVAS



943 86 88 11
info@ekainberri.com
Portale kalea 1
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

Ekanberri: LH Eskaintza didaktikoa

Lehen gizakia da protagonista Lehen Hezkuntzan

Lehen Hezkuntzako ikasleek Ekainberri eta bertako margoak ezagutzeko egingo duten bisitan luxuzko laguntzaileak izango dituzte: Kael, Naira eta Narel. Ikasleak Historiaurreko bizimoduan murgilduko dira beraien adinari eta ikasketa mailari egokitutako bisita eta tailerren bitartez. Kaelek ikasleak kobazuloko paretetan margotzera gonbidatuko ditu, horretarako, noski, Nairak lortu duen sua beharko du. Bitartean, Narelek tribuko helduei ehizarako garaian lagunduko die.

Junto con Kael, Naira y Narel, alumnas/os de Educación Primaria se sumergen en la forma de vida prehistórica, con visitas y talleres adaptados a su edad y capacidades. Kael nos invita a pintar en las paredes de la cueva, para ello, por supuesto, necesita el fuego conseguido por Naira. Mientras tanto, Narel ayuda a las/os adultas/os de su tribu con la caza.

6 € haur bakoitzeko. Irakasleak doan.

943 86 88 11
info@ekainberri.com

Animaliei jarraika

Ekainberriak: *Nor zaitugu eta zer zabiltza hemen?*

Kael: *Kaixo! Kael naiz! Ekaingo haitzuloan bizi den tribuko kidea! Gutxitan uzten didate kobazulo barrura sartzen, baina jakin badakit hainbat animaliaren marrazkiak daudela hormetan, zaldiak, hartzak, bisonteak, oreinak… Margoak gure amona baino zaharragoak dira! Sartuko al gara elkarrekin zenbat dauden eta nolakoak diren ikustera?*

Ekaingo marrazkiak Izoztaroan egin ziren, garai hartako paisaia, landaredia eta fauna, gaur egungoaren erabat desberdinak ziren. Jarduera honen helburua LHko lehen zikloko ikasleek Historiaurreko animaliak ezagutu eta bereiztea da, batzuetan galduta dauden animaliak dira, edo behintzat gaur egun Ekainen inguruan bizi ez direnak. Bi ordutan zehar, animalia horien marrazkiak aurkitu eta marrazki horien bertsio propioak sortu behar izaten dituzte.

Goazen ehizara

Ekainberriak: *Neskato! Nora zoaz eta zer dira eskuetan daramatzazun tresna horiek? Helduek uzten al dizute tresna horiekin jolas egiten?*

Narel: *Kaixo! Narel naiz, familia honetako alaba zaharrena! Eskuan daramatzadanak gure tribuaren ehiza tresnetako batzuk dira! Bultzagailua, azagaiak, uztaia eta geziak! Eta ez naiz jolasean ari! Ehiztariak hor zehar dabiltza janaria lortu nahirik eta ni kobazulora bidali naute arma gehiagoren bila. Etorri gurekin ehizan egitera!*

Janaria lortzea ezinbestekoa da edonorentzat eta Paleolito garaian ehiza zen animalia jatorriko elikagaiak lortzeko modu nagusia. Harrizko, adarrezko edo hezurrezko puntak egurrezko makiletan jarrita egiten zituzten armak, eta ehiza eraginkortasuna hobetzeko zenbait modu eta teknika garatu zituzten. Ekainberrin tresna horiekin ehizan egiteko aukera eskaintzen da.

Suaren bila



Ekainberriak: *Aizu! Ekaingo tribuko kideak elkarrizketatzen ari naiz, zu nor zara?*

Naira: *Naira naiz! Ekaingo tribuko kidea naiz, hiru seme-alaba ditut, beti muturra edozein lekutan sartzeko prest daudenak! Nire poltsa honetan sua egiteko behar ditudan tresnak daramatzat! Sua ezinbestekoa da guretzat! Zertarako? Janaria prestatzeko, hotzik ez pasatzeko, animalia basatiak uxatzeko… eta kobazuloan sartzean gauzak ikusi ahal izateko!!*

Duela 13.000 urte, Euskal Herrian sekulako hotza egiten zuen. Jendeak ez zuen berogailurik etxean eroso egoteko, ez zegoen sukalderik janaria prestatzeko eta argi elektrikorik ilunpeak argitzeko. Argia, beroa edo janaria prestatzeko gailua sua zen garai hartako gizakientzat.
Ekainberrik ikasleei bi ordutan zehar suak argitutako mundu hartara itzultzea proposatzen die, Historiaurreko moduan sua eginez eta su horren argitan kobazuloko margoen bila abiatuz.

Lagin batetik…

Epa lagunok! Zer egiten duzue hor niri begira? Ez al duzue inoiz arkeologo bat bere lan-jardunaldia amaitu eta lurreko zulo batetik irteten ikusi?

Ez, ez naiz sator bat! Ez naiz gasaren konpainiako langile bat ere! Ez, Peio naiz, Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoa, eta lurpean nabil lanean aspaldi gure inguruan bizi zen jendearen aztarnen bila!

Momentu honetan hiri bateko lurpean ari naiz lanean! Gezurra dirudi, baina gure etxeen azpietan ere garai bateko pertsonek utzitako aztarnak aurkitzen dira! Gure hiriak eta herriak dauden inguruan jendea bizi izan da oso aspalditik eta pertsona horiek guztiek euren aztarnak utzi dizkigute, gehiago edo gutxiago, ikusgarriak edo ez hainbeste, baina gure lurpeek gure zibilizazioaren gakoak gordetzen dituzte!

Hirian lana egiteak baditu abantaila batzuk, adibidez hamaiketakoa egiteko taberna bat topatzea askoz errazagoa da mendian zabiltzanean baino!

Baina badago hainbeste gustatzen ez zaidan alderdirik ere: jendea nire buru gainean bizi da edo hor egiten du lana, beraz, guk arkeologook ere gure lana jendearen beharretara eta ordutegietara egokitu behar izaten dugu!

Aldi berean, mendian gutxitan gertatzen zaigun beste gauza eder bat ere badu hiriko lanak: jendea zure lanari buruz galdetzera etortzea, batez ere gaztetxoen begietan ikusten dugun jakin-min dirdira ikustea! Eta orain horrexekin konformatu behar! Aspaldian zorioneko maskarekin umeen irribarrerik ikusteko aukera handirik ez dugu izan eta!

Peio
arkeologoa

Lehen gizakien ekintzak ikertzen dituzte Bigarren Hezkuntzan

Samai eta Shairaren laguntzaz, Bigarren Hezkuntzako ikasleek Ekainberri ezagutu ahal izango dute Goi Paleolitoko biziraupenerako teknika eta formak aurrera eramanez, arte eramangarria sortzeko aukera ere izango dute.

En compañía de Samai y Shaira, alumnas/os de la Educación Secundaria Obligatoria pueden conocer Ekainberri mediante la práctica de modos y técnicas de supervivencia del Paleolítico Superior y a través de la creación de obras de arte mueble.

Ehiza egun bat

Ekainberriak: *Kaixo! Samai delako ehiztari bikain baten bila nabil bere lanari buruzko galdera batzuk egiteko.*

Samai: *Kaixo! Neu naiz Samai! Janaria bilatzea da nire lanik garrantzitsuena. Sastarrain bailararen sekretu guztiak ezagutzen ditut, badakit hemengo animaliarik txikienak ere gordelekua non duen! Hori bai, meritu guztia ez da nirea! Eskerrak gure tribuan ehiza oparoa izateko otoitzak eta egiten dituen jendea badela!*

Historiaurreko arma nagusia lantzak ziren eta denborarekin, azagaia deituriko lantza mota berezi bat garatu zen, bultzagailua deitzen den tresna batekin jaurtitzeko prestatuta daude. Ekainberriren ingurua leku aproposa da ehiza espedizio bat antolatzeko, basoak bizirik irauteko beharrezko baliabide guztiak eskaintzen baititu. Labar arteak oraindik erantzunik ez duen galdera bat luzatzen du: ehiza emankorrak izateko margotu al zuten?"

Ekaingo artista

Ekainberriak: *Barkatu, zu al zaitugu Shaira? Sastarrain bailarara iritsi naizenetik ez dut beste izenik entzuten! Shaira Ekaingo tribuaren arima omen da!*

Shaira: *Kaixo gazte! Ba bai, neu naiz Shaira! Tribuko zaharrenetakoa naiz, bere arima naizela esatea gehitxo izango da, baina gauza franko ikusi ditut! Hemen gure arbasoek eta geuk egindako margo bereziak daude! Gure eguneroko bizitzan izpirituen laguntza izateko errito bereziak eta magia egiten ditugu! Badakit margo hauek zuen tribuan ere oso preziatuak dituzuela, artelan deitzen diozue eta Gizateriaren Ondare izendatu dituzue.*

Jendea Ekainberrira labar artea ikustera etorri ohi da, baina Paleolito garaian bazen beste arte mota bat ere, arte eramangarria deitua, agian ez hain ezaguna, askotan pieza eta tresna txikiek osatzen dutelako multzo hau.

Hotzetik epelera

Ekainberriak: *Kaixo bikote, ba al dakizue Samai eta Shaira non aurki ditzakedan? Beraiek Izotz Aroko landaredian eta animalietan adituak omen dira, eta klima aldaketaren gaia pil-pilean dagoenez, beraiekin hitz egin nahi nuke.*

Shaira: *Neu naiz Shaira! Samai ehizarako prestakuntzetan dabil oraintxe eta ezingo dizue kasurik egin! Gure asabek kontatzen dute gure inguruan aspaldian bazirela gaur egun ezagutu ere egiten ez ditugun landare eta animalia mota asko, inguru honetan epel-epel egiten zuela, ez zutela elurrik ezagutu ere egiten! Hori posible ote da?*

Lur planetan klima aldatzen joan da denboran zehar, milaka urte irauten duten aroetan zehar, garai hotzak, epelak eta beroak izan dira eta bakoitzean fauna eta flora mota jakin batzuk garatu dira. Zer eragin du gizakiak aldaketa horietan?

6 € haur bakoitzeko. Irakasleak doan.

943 86 88 11
info@ekainberri.com

Historiaurrea Ekainberrin ezagutu daiteke, modu seguruan

Lehen gizakia zure ikastetxean: Ekain Zure Gelan

2020ko martxoaren amaiera eta apirileko itxieraren ondoren, COVID-19 birusaren hedapena geldiarazteko neurri bereziak hartu ziren Ekainberrin. Egoerak aparteko neurriak hartzea derrigortzen zuen, bisitariek ohiko moduan esperientzia positibo bat bizi zezaten baina segurtasun neurri guztiekin.

Lehenik eta behin, gel hidro alkoholikoarekin eskuak garbitzea eta maskara eramatea derrigorrezko bihurtu dira bisitarientzat. Sarrerak www.ekainberri.eus webgune bidez erostea gomendatzen da. Ohar kartelak ezarri dira harrera guneetan eta bisitarien ibilbidean zehar, segurtasun neurriak gogoraraziz. Gainera, bisita gidatu eta arkeologia esperimentaleko tailerretarako erabiltzaile kopuru muga murriztu egin da, kopuru maximoa indarrean dauden momentuko murrizpenetara egokitzen da. Bisita eta tailerren maiztasuna ugarituz, parte hartze aukera gehiago eskaini dira. Ekainberriko gida-hezitzaileak ere babes pertsonalerako elementuak erabiltzen dituzte eta garbiketa indartu eta ugaritu egin da Ekainberriko instalakuntza guztietan barrena.

Gaur egungo normaltasun berriak ere segurtasun neurriak eskatzen ditu bisitari eta ikastetxeek historiaurreaz dituzten ezagutzak zabal ditzaten Ekainberrin, segurtasun osoz. Ekainberrira ikastetxearekin etortzeko plana borobila da, esperientzia zabala daukagu gai honetan. Talde txikiak egiten ditugu, adinaren araberako jarduerak ditugu eta naturaz gozatzeko ingurune paregabean aurkitzen da Ekainberri, Zestoako Sastarrain bailaran. Gainera, DBHko ikasleentzat eskaintza berria sortu dugu, "Hotzetik Epelera" izenekoa. Egin zure erreserba! Ekainberriko sarrera salmenta bulegoan (Portale kalea 1, 20740 Zestoa), www.ekainberri.eus, info@ekainberri.com edo 943 86 88 11 telefonoan.

Hala eta guztiz ere, lehen gizakiari buruz, Ekaingo margoei buruz eta historiaurreko biziraupen teknikei buruz gehiago ezagutzeko irrikatzen dauden ikastetxe guztientzako, badago aukerarik hori guztia gelatik mugitu ere egin gabe egiteko!

Ekain Zure Gelan programa ikastetxe guztien eskura dago dagoeneko: historiaurrean aditua den hezitzaile bat gerturatuko da zuen gelara eta bertatik bertara kontatuko dizkizue Ekain kobako margoen sekretu guztiak eta lehen gizakiak zekizkien sua egiteko, margotzeko edo ehiza egiteko teknika guztiak!

Tras los meses de cierre total durante marzo y abril de 2020, Ekainberri adoptó todas las medidas necesarias para la contención del virus COVID-19. Reforzando la limpieza y la seguridad, la oferta de Ekainberri para los centros escolares sigue intacta, más aún, se oferta una nueva actividad "Del frio al calor" para alumnos de ESO. A través del programa "Ekain en tu Aula", una persona especialista en Prehistoria acercará todos los secretos de las pinturas de Ekain y de la vida prehistórica al aula.

Ekainberri: Batxilergoa eskaintza didaktikoa

Batxilergoko ikasleak arkeologiara hurbiltzen ditugu

Arkeologoa naiz

Ekainberriak: *Gaur Ekainberrira etorri gara Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoa den Peiori elkarrizketa egin eta bere lanbidea hobeto ezagutzera. Zertan ari zara oraintxe?*

Peio: *Ni arkeologoa naiz, aspaldiko gizakiek utzitako "zaborra" ikertzen dut pertsona haiek nola bizi ziren jakiteko! Garrantzitsua da lana metodo zuzen baten bidez egitea, bestela ezin baita jakin tresna edo elementu bakoitza nork, noiz eta zertarako eraiki zuen.*

Leizeetako hartzak, leizeetako lehoiak, mamutak… Ume eta gazte askoren ametsa da arkeologo bihurtzea horrelako aurkikuntzak burutzeko. Arkeologoaren lanaren alderdi ezezaguna liburutegian edo laborategian sartuta pasatzen diren ordu guztiak dira. Ekainberrin bi alderdiak ezagutzeko aukera eskaintzan dute, mahai baten atzean eserita egiten den analisi lana eta aztarnategi batean egiten dena

6 € haur bakoitzeko. Irakasleak doan.

943 86 88 11
info@ekainberri.com

Batxilergoko ikasleek arkeologia zientziaren prozesuak ezagutu ahal izango dituzte Aranzadi Zientzia Elkarteko Peio arkeologoarekin. Lanbide honetara hurbiltzeko lehendabiziko hastapenak izatea da helburua eta beharbada arkeologia eta ikerketa etorkizuneko lanbide moduan ikusten duen ikasleren bat izan dezakegu.

Estudiantes de Bachillerato pueden conocer de primera mano el proceso del trabajo arqueológico de la mano de Peio, arqueólogo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, el objetivo es que hagan una primera toma de contacto con una profesión que puede ser su medio de vida en el futuro.

Erreserbatu zure jarduera Ekainberrin

Ekainberrik zerbitzu bakoitzeko bisitari kopurua mugatua du, beraz, bertako arduradunek aurrez zerbitzua erreserbatzea gomendatzen dute. Taldeen kasuan, aurrez erreserba egitea ezinbestekoa da.

Ekainberriko erreserba gehienak telefonoz kudeatzen dira, horretarako dago 943 86 88 11 telefono zenbakia, baina info@ekainberri.com e-posta helbidea ere erabili daiteke.

Ikasketa ziklo bakoitzerako egokituriko eskaintza didaktiko bat dagoenez, egiten den lehen galdera taldearen adina izaten da, behin jarduera erabakita dagoenean, ikasle kopurua eta zenbat azpitaldeetan antolatu erabaki behar izaten da.

Behin bisitaren eguna eta ordutegia zehaztuta, Ekainberritik arduradunari e-postaz egiaztagiri bat helerazten zaio erreserbaren datu guztiekin, hor adierazten dira kontutan hartu beharreko gai guztiak.

Erreserba egiten duen taldearen arduradunak eskura izan behar ditu ikastetxearen hainbat datu ere, hala nola taldearen arduradunaren izena, ikastetxeko telefono zenbakia, helbide postala eta e-posta helbidea.

El aforo por grupo en Ekainberri es limitado, por lo que se recomienda hacer reserva previa. Esa reserva es imprescindible en el caso de los grupos.

Las reservas de grupos se gestionan a través del número telefónico 943 86 88 11, también se puede hacer a través de la dirección de correo electrónico info@ekainberri.com.

Para hacer la reserva hay que dar el número de alumnas/os y de grupos en los que se organizarán, el nombre de un/a responsable, el número de teléfono, dirección postal y dirección de correo electrónico del centro.

Ekainberriko publikoaren arreta eta sarrera salmenta bulegoa.

Ekainberriko sarrera nagusia.

Eskaintza Didaktikoa xehetasunean ezagutzeko:

Zestoa, 2022an bisitatzeko jomuga

Zestoa Gipuzkoako barrualdean kokatua dagoen herria da, oso ondo komunikatutako herri erakargarria eta kostaldetik oso gertu dagoena. Bere jarduera ekonomikoaren oinarria nekazaritza izan arren, industria eta zerbitzu sektore indartsuek bultzada ematen diote Zestoari. Ostalaritza eta merkataritza eskaintza zabal batekin, naturaz inguratutako herri lasai eta atsegina da Zestoa, bertako zein bisitarientzako.

Ikastetxearekin bisitatzeaz gain, familian eta lagunartean etortzeko jomuga ezin hobean bilakatu da Zestoa, izan ere, naturaz gozatzeko toki apartak ditu eta bisitariak ahozabalik geratzeko moduko historia eta tradizioak uztartzen ditu; adibidez, UNESCOk Munduko Ondare izendatutako Ekain kobazuloak bisitatzeko abiapuntu ezin hobea da. Kontrastez beteriko herri anitza, xarmanta eta erakargarria da Zestoa.

ZESTOAN EGITEKO TOP 5 ESPERIENTZIAK:

Ekainberri.
Sastarrain bailaran kokatuta, naturaz inguratutako oinezko ibilbide eder batetan, Historiaurrea bizitzeko esperientzia zirraragarriak eskaintzen ditu Ekainberrik. Ekaingo koban aurkitzen diren Euskal kostaldeko labar-pintura ikusgarrienak ezagutu daitezke, lurralde honetako kulturaren jatorrietara eramaten duen zentzumenen bidezko bidai batetan erreplika zoragarri honen bitartez. Ikastetxeentzako eskaintza zabala du, zikloka banatuta.

Lili Jauregia.
Benetako antzeztokian eta pertsonaia historikoekin, hezur-haragizko aktore baten dramatizazioarekin garatzen da Lilitarren Ohorea antzezlana. Bakarrizketa moduan, Lili Jauregian bizi izan zen Lilitarren leinuko azken ondorengoak Andre Madalenek, 1678. urtera bidai arazten ditu bisitariak; Jauregiko gela eta areto ederren bisitaldiaren bitartez. Duela lau mendeetako Gipuzkoa ezagutzeko esperientzia zirraragarri eta esklusiboa da. Jai egun eta aste bukaeretan garatzen den eskaintza da, egin ezazu zure erreserba eta murgildu zaitez benetako iraganeko Gipuzkoan.

Zestoa kalez kale.
Herriko txokorik ikusgarrienak eta eraikuntzarik berezienak ezagutzeko, kalez kale ibiltzea aukera aparta da. Honen lagungarri, Ekainberrik Ekain Audio-Tour app deskargagarria jarri du Android eta iPhonerentzako, ikusi, entzun eta gozatzeko. Herriko taberna, jatetxe, denda eta ostatuek egonaldirako beharrezko eskaintza osatzen dute. Ekainberri bisitatu ondoren edo aurretik ezagutu eta gozatzeko herrigunea du Zestoak.

Oinezko ibilbideak.
Oinezko 6 ibilbide deskribatzen eta gomendatzen dira www.zestoaturismo.net webgunean. Laburragoak edo luzeagoak, zailtasun anitzetakoak, Zestoako inguruko mendi eta ibilbideak herriko altxorretako batzuk dira, ekainberriko bisitaren osagarri ederra.

Iraeta eta Narrondo arteko Bide Berdea.
Txirringaz zein oinez, Urolako tren zaharrak egiten zuen ibilbideaz gozatu daiteke. Bidean, Zestoako Bainuetxea eta Iraeta zein Zestoako bi tren geltoki zaharren eraikin ikusgarriak bide honetako harribitxiak dira.

Zestoako gainontzeko turismo baliabideak ezagutzeko:
www.zestoaturismo.net
943 86 88 12
info@zestoaturismo.net

Kobaz Koba Trail 2020

Euskal Historiaurrera garamatzan lasterketa
www.kobazkobatrail.com

Azken urteetan mendi lasterketak, trailak, mendi maratoiak, ultratrailak eta mendiaz ziztu bizian gozatzeko aukera ematen duten atletismo modalitateak modan jarri dira. Zestoako Agiro Mendi Taldeak eta ARAZI denbora zeramaten horrelako zerbait antolatu nahian. 2016an Ekainberriko arduradunengana jo zuten, zergatik? Zestoa Historiaurreko ondare arkeologiko garrantzitsua duen herria da eta ondare elementu horiek lotuko lituzkeen mendi lasterketa bat antolatu nahi lukete.

Duela milaka urte Euskal Herriko mendietan ibiltzen ziren gizaki ehiztari eta biltzaile haien ibilbideari jarraituko dion mendi lasterketa bat antolatuko al dugu? Gaur egungo gizakien mugak neurtzeko balioko duen lasterketa bat? Ekainberrin ere ez gara erronkei muzin egiten diegun jende klasea eta horrelako lasterketa bat gure ondarea ikuspegi desberdin batetik ezagutzera emateko aukera bikaina iruditu zitzaigun.

Mendi lasterketen egutegian txoko bat topatu genuen otsaileko bigarren igandean, gainera, urte sasoi horretan egin dezakeen eguraldiak ere Ekaingo margoen garaira garamatza, Izotz Aroko eguraldia irudikatzeko aitzakia polita izan zitekeen.

2016an jaio zen Kobaz Koba Trail mendi lasterketa bi ibilbide desberdinekin, 25 kilometroko Zaldei ibilbidea eta 16 kilometroko Artzei ibilbidea.

Lehen edizio honek 300 korrikalari inguru erakarri zituen Zestoako mendietara. Ospatu ahal izan genuen azken edizioan, 2020ko otsailaren 9an, 550 parte hartzaile izan genituen kategoria desberdinetan banatuta.

2021ko edizioa ezin izan da burutu, otsailerako osasun neurri batzuk arindu eta zenbait lasterketa egiten hasita zeuden arren, momentu hartako osasun egoeran aurreko edizioetako korrikalari kopurua mantentzea ezinezkoa gertatuko zen eta horrelako antolakuntza batek behar duen langile eta boluntario kopuruaren segurtasuna bermatzea ere ezinezkoa izango zela baloratu zen.

Ez dakigu 2022ko edizioa burutzerik izango den, baietz desio eta espero dugu, eta horretarako lanean ari gara, baina dena ez dago gure eskuetan.

En 2016 surgió Kobaz Koba Trail a partir de la idea de las/los miembros de ARAZI y Agiro Mendi Elkartea de unir en una carrera de montaña los diferentes yacimientos prehistóricos que pueblan el entorno de Zestoa. Se trata de una carrera que consta de dos recorridos: Zaldei, de 26 kilómetros, y Artzei, de 15 kilómetros.

La imposibilidad de garantizar la seguridad de corredores/as y voluntarios/as llevó a la suspensión de la edición de 2021, esperamos poder volver en 2022, aunque no todo está en nuestras manos, estamos trabajando para que este deseo se haga realidad.

2020. urteko partaideak fotokolean, lasterketa ondoren ondo pasatzen.

EHUS magazineren bigarren alea argitaratu da

Ekain kobazuloa 2008ko ekainaren 7an UNESCOk Munduko ondare izendatu zuen eta horregatik, Ekainberri lankidetzan aritzen den beste sareetako bat da Euskal Herriko UNESCO Sarea. Balio humanistak partekatzen dituzten eta Euskadi mailan bateratsu diharduten erakundeak dira: lau katedra, geoparke bat, biosferaren erreserba bat, hiru Munduko Ondare izendatutako gune, UNESCO zentro bat, beste lau erakunde elkartu eta bost ikastetxe.

Ekainberriaken aurreko alean iragartzen genuen 2019ko urrian Euskal Herriko UNESCO Sareak bere aldizkariaren lehenengo alea argitaratu zuela, Ekaingo zaldien margoak azalean zituela. Euskal Herriko UNESCO Sareak lanean jarraitu du eta dagoeneko aldizkariaren bigarren ale bat ere argitaratu du, kasu honetan, eta garai honetan bizi izan dugun eta oraindik ere pairatzen jarraitzen dugun pandemiaren ondorioz, formatu digitalean.

Aldizkariaren bigarren alerako, sareko zenbait zentru bakarrik hautatu dira erredakzioan parte har dezaten, hain zuzen ere, bisitariei sarrerak saltzearen menpe lan egiten duten erakundeak: Ekain kobaren izenean Ekainberri, Albaola, Santimamiñe, Euskal Kostaldeko Geoparkea eta Bizkaia Zubia. Bakoitzak pandemia garaiari lotutako edukia garatu du aldizkarirako, Agenda UNESCOren Garapen Iraunkorreko 2030 Agendari lotutako 17 puntuei erreferentzia ere eginaz.

Ekainko kobazuloaz gain, Euskal Herriko UNESCO Sareko kideak honakoak dira: Albaola, Artxandape Ikastola, Bizkaia Zubia, Kultura Paisaien eta Ondarearen UPV/EHUko UNESCO Katedra, Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari Buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra, Euskal Kostaldeko Geoparkea, Giza Baliabideen UNESCO Katedra Deustuko Unibertsitatea, Lauaxeta Ikastola, San Felix Ikastola, Santimamiñeko Koba, Tknika, UNESCO Etxea, Munduko Hizkuntza Ondarearen UPV/EHUko UNESCO Katedra, Zientizarako Giza Eskubidearen Aldeko Nazioarteko Institutoa, Zumaiena.

La cueva de Ekain, declarada Patrimonio Mundial en la conferencia de la UNESCO del 7 de julio de 2008, forma parte de Euskal Herriko UNESCO Sarea, donde comparte con el resto de entidades valores humanistas que tratan de actuar conjuntamente en Euskadi. La red ya ha publicado un segundo número de su revisita, donde las entidades con valores patrimoniales como Ekainberri; han contribuido con artículos de análisis de la situación pandémica y su influencia en los sitios patrimonio, haciendo alusión a los 17 objetivos para el desarrollo sostenible, de la Agenda 2030 de la UNESCO.

EHUS Magazina irakurtzeko:

ICE AGE EUROPE: Izoztaroko ondare-lekuen sarea

2013tik Europako izoztaroaren sarean aktiboki parte hartzen du Ekainberrik

Izoztaroa giza historiaren garairik liluragarrienetako bat da. Gaur egungo kulturaren oinarriak Izoztaroak iraun zuen bi milioi urte baino gehiagotan ezarri ziren, eta haren ondorioak gure kultura-ondarearen testigantzan eta giza garapenean aurkitzen dira.

Izoztaroko aztarnategi garrantzitsuenak Europan daude, non giza aztarnak eta labar artea topatu diren, baina baita giza-asentamentuak eta hainbat aparteko aurkikuntza dituzten giza-bizilekuak ere. Kokalekuen garrantzia honako honetan islatzen da: gero eta gehiago direla UNESCO Munduko Ondare; Ekain koba den bezala 2008ko ekainaren 7tik.

Ekainberriren papera oso aktiboa da Ice Age Europe sarean. 2021eko irailean Ice Age Europe Day eguna ospatzen da eta sarea osatzen duten museo eta aztarnategi arkeologikoek eskaintza bereziak antolatzen eta eskaintzen dituzte.

Azken urtean, sareak hainbat proiektu jarri ditu abian, Secrets & Highlights of Ice Age Europe bideo sorta esaterako. Bertan, sareko kide bakoitzak izoztaroko altxor bat aurkezten du.

Ekainberriern parte hartzea: Ba al dakizue zertarako erabiltzen ote zituen duela 14.000 urteko gizakiak hezur zati bat erabiliz egindako tutu bat? Ice Age Europeren Youtubeko kanalean, topatu dezakezue erantzuna!

Ice Age Europe Magazina irakurtzeko:

La Edad de Hielo es una de las épocas más asombrosas de la historia de la humanidad. Es en Europa donde se encuentran muchos de los sitios emblemáticos de la Edad de Hielo, sea con restos humanos o con arte parietal, por ejemplo. La importancia de estos lugares es cada vez mayor, cada vez son más los nombrados Patrimonio de la Humanidad por la UNESCO, tal y como lo fue la cueva de Ekain el 7 de junio de 2008.

Ekainberri participa activamente en la red Ice Age Europe, durante el 2021 ha participado en el proyecto Secrets&Highlights of Ice Age Europe. Por otra parte, Ekainberri ha sido redactora del Ice Age Europe Magazine, participando con un artículo, en el cual plantea los efectos de una pandemia mundial durante la Prehistoria, reflexionando sobre si la sociedad evoluciona o involuciona.

Lili Jauregia

Duela lau mendeko Gipuzkoa, pertsonaia eta eszenatoki errealekin

Lili Jauregia Zestoako eta Gipuzkoako ondare arkitektoniko elementurik garrantzitsuenetako bat da, 1984tik Probintziako Monumentu bezala katalogaturik dago. Urteen eta erabileraren poderioz, oso egoera txarrean aurkitzen zen, erortzeko zorian, Gipuzkoako Foru Aldundiak zaharberritzea eta balioan jartzea bultzatu zituen. Ondoren, bere kudeaketa Ekain Fundazioaren esku utzi zuen.

Behin eraikinaren bizi iraupena bermatuta, bere edukiak osatu eta gizarteratu behar ziren. Hasieratik ideia Lili Jauregia bisitariei zabaltzea zen eta bisita antzeztuen bidez erakustea erabaki zen.

Gaur egun "Lilitarren ohorea" izeneko emanaldia eskaintzen du Lili Jauregiak, Lili Jauregian XVII. mendean benetan gertaturiko gertakarietan oinarritzen da antzezlana eta protagonista Madalena Amilibia eta Elkaraeta da. Madalena, benetako historian oinarritua, euskal emakume indartsu eta ahaldundu bat da, egoerarik zailenetan ere Lili familia bide zuzenetik eramateko gaitasuna izan duena.
Jasaten ari garen pandemiak Lili Jauregian ere eragina izan du, zerbitzu bakoitzeko bisitari kopurua mugatu behar izan baitugu, momentuko arautegiak errespetatuz.

"Lilitarren ohorea" antzerkian parte hartu ahal izateko, sarrerak Zestoako Informazio Puntuan erosten dira. Bisitak normalean baino ere mugatuagoak direnez, aurretik erreserba egitea komeni izaten da, 943 868811 telefono zenbakian edo www.lilijauregia.com web orriaren bidez.

Benetako eszenario eta pertsonaia historikoekin, eta hezur-haragizko aktore baten dramatizazioarekin duela lau mendeko Gipuzkoa nolakoa zen ezagutzeko aukera ezin hobea da.

La visita al Palacio Lili se realiza mediante visitas teatralizadas. Magdalena Amilibia y Elkaraeta es una mujer fuerte y empoderada del siglo XVII, capaz de llevar la familia Lili por el buen camino incluso en los momentos más complicados.

Las entradas se adquieren en el Punto de Información de Zestoa, se recomienda reservar llamando al 943 868811, las plazas en las visitas son limitadas por la situación de pandemia.

Una oportunidad inmejorable para conocer la Gipuzkoa de hace cuatro siglos fusionando escenarios y personajes reales, con la dramatización de una actriz.

Andre Maddalen, bisita antzeztuaren une batean.

Ekain berriak

***Gomendagarria da aldez aurretik erreserba egitea telefono zenbaki honetara deitzen:**
*Es recomendable hacer una reserva previa llamando a este número de teléfono:



943 86 88 11

Salmenta puntua
Punto de venta
Portale kalea 1
20740 Zestoa [Gipuzkoa]

Ekain berri
www.ekainberri.eus
info@ekainberri.com
Ekainberri Ekaingo Kobaren Erreplika
@ekainberri

Lili Jauregia
www.lilijauregia.com
Lili Jauregia-Palacio Lili
@AndreMadalen

Ekainberrin gertatu da...

Ekainberri Arazi-Aranzadi UTE ak kudeatzen du eta gidok jertseetan, maskaretan eta txamarretan Arazi hitza eta enpresaren logotipoa daramatzagu. Gure bisitariek, eta bereziki umeek, ez dakite enpresen eta lantokien berririk, beraz, Arazi gure izena dela pentsatzen dute, baina izen hori ez dute inoiz entzun eta bat-batean bi edo hiru pertsona ikusten dituzte izen horrekin, neskak eta mutilak, eta ea Garazi deitzen garen eta arropako idatzietatik G hizkia erori al zaigun galdetu izan digute.

Denborarekin Ekainberriko gidarion uniformea aldatzen joan da, goitik behera beltzez hasi ginen, beltza eta kolore desberdinetako kamisetetara igaro, jertse grisa, kamiseta laranja…, baina beti ere beltzez amaitu ohi dugu eta kobazulo ilun batean egiten dugu lana. Egun batean gida batek talde bati "jarraitu niri mesedez" esaldi magikoa bota zuen, bisita bukatzean, emakume bat gerturatu zitzaion eta oso serio esan zion: "besteok zuri ilunpean jarraitzea nahi baduzu, beltza ez den zerbait jantzi beharko zenuke!"

Ekainberriko erreplikaren helburu nagusietako bat marrazkien testuingurua ahalik eta berdinen kopiatzea izan zen hasieratik, kobazuloko estalaktitak eta estalagmitak ere kopiatu egin ziren eta beraietako batzuetatik ura erori izan da, benetako kobazuloan bezalaxe. Bisita aurrera doan neurrian, jendeari ahaztu egiten zaio erreplika batean gaudela eta ea estalaktita eta estalagmita horiek hazten jarraituko duten galdetu izan digute.

Kobazulo baten erreplika kontzeptua ez da azaltzen eta ulertzen erraza, askotan entzun dugu "baina nola kopiatu duzue kobazulo bat?". Guri ere kosta egiten zaigu galdera horri erantzutea eta erreplika barrutik ezagutzera gonbidatzen dugu jendea. Baina badago beste kezka batzuekin datorren jendea ere. Askoren kezka nagusia kobazuloan sagu-zaharrak agertzea izan ohi da eta, hau benetako kobazuloa ez denez hemen sagu-zaharrik ez dugula azaldu arren, bisitan margoei baino sagu-zaharrei kasu gehiago egiten dioten bisitariak izaten ditugu.

Ocurrió en Ekainberri...

Arazi-Aranzadi UTE es la empresa que gestiona Ekainberri y las/os guías solemos llevar el nombre de la empresa Arazi y el logotipo en el uniforme, en sudaderas, chaquetas y mascarillas. Pero nuestras/os visitantes, y sobre todo las/os niñas/os no saben de empresas y puestos de trabajo, por lo que piensan que nos llamamos Arazi, nunca habían escuchado ese nombre y ven a dos o tres personas, chicos y chicas, con ese nombre, nos preguntan si nos llamamos Garazi y se nos ha caído la G del dibujo de la ropa.

Con el tiempo, el uniforme de las/os guías de Ekainberri ha ido cambiando, empezamos de negro de arriba a abajo, pasamos al negro con camisetas de colores, sudadera gris, camiseta naranja…, pero siempre tendemos al negro y trabajamos en una oscura cueva. Un día que una guía repitió la frase mágica "síganme a mí por favor", al finalizar la visita, una visitante se le acercó y le dijo muy seria: "si quieres que los demás te sigamos en la oscuridad, ¡deberías ponerte algo que no sea negro!"

Desde un principio, uno de los objetivos principales de la réplica de Ekainberri ha sido reproducir al máximo detalle posible el contexto de las pinturas, se copiaron también las estalagmitas y las estalactitas de la cueva y de ellas incluso cae agua, como en la cueva original. Según avanza la visita, la gente va olvidando que está en una réplica y nos suelen preguntar si esas estalactitas y estalagmitas seguirán creciendo.

El concepto de réplica de una cueva no es fácil de entender y de explicar, hemos escuchado muchas veces la pregunta de "¿pero cómo habéis copiado una cueva?", nosotras/os mismas/os nos cuesta responder esa pregunta e invitamos a la gente a conocer la réplica por dentro. Pero hay gente que trae otro tipo de pensamientos. Su principal preocupación suele ser que aparezcan murciélagos en la cueva y, aunque les expliquemos que al no ser esta una cueva real, no tenemos murciélagos, solemos tener visitantes que están más pendientes del posible vuelo de un murciélago inexistente que a las pinturas.

Ekainberritik...

Ekainberriko hezitzaileak

Hamahiru zenbakiak zorte txarra ekartzen omen du, sineskerien zaleek horrela diote behintzat! Badira hamahiru zenbakia ez esateagatik edo idazteagatik gauza oso xelebreak egiten dituzten pertsonak ere!

Aurten Ekainberrik 13 urte betetzen ditu zabalik! Eta zer nahi duzue esatea, aurreko urtea, gure bizitzako 12.a nolakoa izan den kontutan hartuta, ez da erraza datorrena okerragoa izatea!

2020a urte zaila eta gogorra izan da denontzat, baita Ekainberri osatzen dugun pertsonontzat ere! Itxialdiak, edukieren murrizketa, negu partean gure egunak alaitzen dituzten ikasleen falta, jendea leku batetik bestera mugitu ezina, segurtasuna eta bisitariekiko hurbiltasuna uztartzeko zailtasunak, kutsatua izateko eta norbait kutsatzeko beldurra …, atzean uztera goazen 2020-21 ikasturte hau markatu duten elementuak izan dira.

13. urteurrena zalantzaz beteta ospatzea tokatuko zaigu, zer garapen izango du pandemiak? Taldeen edukierak zabalduko al dira? Ikastetxeek irteerak egiteko aukerarik izango al dute? Ekonomiak izan duen geldialdia gaindituko al dugu? Eta ez badugu krisitik irteten, jendeak kultur azpiegiturak bisitatzen jarraituko al du?

Baina baikorrak gara! Hau ez da Ekainberriri bizitzea tokatu zaion lehen krisia! Lehengoak ere gainditu genituen eta gauza asko irakatsi dizkigute! Batetik, lana ondo eginez gero, jendeak lan hori baloratu egiten duela ohartu gara; bestetik, esperientziak erakutsi digu eskaintza zabaltzen bada, jendea erakartzea errazagoa dela. Pazientziaren garrantzia ere ikasi dugu, ehun urte irauten duen gaitzik ez omen dago.

Beste ikasgai garrantzitsu bat ere ikasi dugu, egia esan, bagenekien Ekainberrin eskaintzen dugun produktua bikaina dela, Ekaingo kobazuloko margoak Gizateriaren Ondare dira eta ez da kasualitatea, labar artearen arloan mundu mailako erreferente dira. Baina margo horiek inoiz ez dira publiko orokorrarentzat zabalik egon, erreplika bat egitea izan da jende askorentzat margo horietara hurbiltzeko aukera bakarra, eta ez da guk bertan lana egiten dugulako (ez horregatik bakarrik!), baina Ekainberriko erreplika benetan ona da!

Ea 2021-22 ikasturte honek zer dakarkigun… Ea txertoak eraginkorrak diren, kutsadurak murrizten diren eta "normaltasun berria" lehen genuen bizimodura zerbait hurbiltzen hasten den!

Ekain Fundazioko kideak
Miembros de la Fundación Ekain

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN Es futuro
ZESTOAKO UDALA

Ekainberri eta Lili Jauregiko kudeaketa
Gestión de Ekainberri y el Palacio Lili

arazi ideiak borobiltzen
aranzadi zientzia elkartea

ice age EUROPE
CARP www.prehistour.eu
Cultural Route of the Itinéraire Culturel du COUNCIL OF EUROPE CONSEIL DE L'EUROPE
turismo FAMILIAR EUSKADI BASQUE COUNTRY
PATRIMONIO MUNDIAL • WORLD HERITAGE • PATRIMOINE MONDIAL
lurpea mugarik gabeko lurpea el subsuelo sin fronteras sous la terre et sans frontières

Argitaratzailea: Arazi IKT S.L. | www.arazi.eus | arazi@arazi.eus | 943 83 36 41